



OHAR GARRANTZITSUA. Pertsonalaren Erregistroan dauden seme-alabei buruzko datuak baino ez dira kontuan hartuko PFEZren atxikipen ehunekoak aplikatzeko.

Nominaren kudeaketa EIZU sistemaren bidez egiten hasi zenean, orduan erabiltzen ari ziren atxikipen ehunekoak **behin-behinekoz** aplikatzen jarraitzeko erabakia hartu zen, Pertsonalaren Erregistroan ageri ziren seme-alabei buruzko datuen arabera zuzenak ziren edo ez begiratu gabe.

Irizpide hori aldatu da eta pertsonalaren Erregistroan dauden seme-alabei buruzko datuak baino ez dira kontuan hartuko zerga araudiak ezartzen dituen atxikipen ehunekoak aplikatzeko.

Beraz, atxikipen ehunekoaren eguneratze bat egin da ofizioz zerga araudira egokitzeko, minusbaliotasunik gabeko seme-alaben adina 30 urtetik gorakoa den kasuetarako.

Halaber, identifikatu dira Pertsonalaren Erregistroan seme-alabei buruzko batere daturik ez egon arren seme-alabak izatearen ondoriozko atxikipen ehuneko txikiagoak aplikatzen ari zaizkien enplegatuek, zerga araudiak atxikipen ehuneko handiagoak ezartzen baititu. **Datuak eguneratzeko epea 2020/09/30 a izango da. Datu horiek eguneratzen ez badira, orain artekoa baino atxikipen handiagoa aplikatuko zaie.**

Nola kontsulta ditzaket nire seme-alabei buruz Pertsonalaren Erregistroan dauden datuak?

EIZU Atarian ikus dezakezu informazio hori, Datu Pertsonalak/Datu Pertsonalak atalean.

Hortaz, adina eta PFEZerako konputagarria izateari buruzko datuak gainbegiratzeko gomendioa ematen da. Xehetasun horiek eskuin aldeko ikonoan sakatuta ikusi ahal dira.

Nola erregistratu edo zuzendu ditzaket nire seme-alabei buruzko datuak Pertsonalaren Erregistroan?

Zure seme-alabei buruzko datuak erregistratzeko edo zuzentzeko eskaera, PFEZko atxikipenentarako konputagarriak izan daitezen, EIZU Atarian egin dezakezu, Datu pertsonalak emat/aldat prozeduraren bitartez. Familia Liburuaren kopia eskaneatua erantsi beharko duzu espedientera. Garrantzitsua da "BAI" hautatzea PFEZ zutabean, egungo atxikipena mantendu nahi bada.

Noiz aplikatuko da aldaketa?

Aldaketa hau porzentaian hurrengo hilabetean aplikatuko da.

Jarraian, erabili behar duen prozedurari buruzko informazioa dago.

EIZU > Nire Gestioak > Eskaerak aurkeztea

Aukeratu datu pertsonalak ematea/aldatzea

**Zabaltzerakoan aukeratu familia datuak**

Eskaerak aurkeztea
Prozedura hautatzea

Enplegatuaren datuak

Posizioa:
[Redacted]

Saila/Erakundea: HEZKUNTZA

Egin daitezkeen eskaerak

- ▶ Lizentziak eta baimenak
- ▶ Plangintza eta ordutegiaren kontrola
- ▼ Langileen administrazioa
 - ▶ **Datu pertsonalak emat/aldat**
 - Banku-helbideratze datuak
 - Datu fiskalak
 - Datu pertsonalak
 - **Familia-datuak**
 - Helbide-datuak
 - Komunikazio-datuak
 - Minusbaliotasun-datuak
- ▶ Gizarte onurak


Inprimaki bat agertuko da sisteman dauden datuekin. Falta diren seme-alabak gehitu beharko dira gezi batekin markatuta dagoen botoiarekin, edo daudenak aldatu PFEZrako zenbatzen diren ala ez adieraziz (taulako PFEZ eremua).


Eskaerak aurkeztea
Eskaera-inprimakia

Familia/erref.pertsona

Oharrak:
Laguntza:
Senitarteko berriren bat gehitzeko sakatu marra berria
Senide baten datuak aldatu nahi badituzu, aukeratu nahi duzun eremua haren lerroan eta alda itzazu.
Nahi gabe gehitutako senide bat ezabatu nahi izanez gero, aukeratu haren lerroa eta sakatu lerro gorria duen ikonoa.

Familia-datuak



Senidetasuna	PF...	Senitartekoaren izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
 Faborez, sartu behar diren datuak taulan.				

Lerro berri bat gehitzen diotenean, zuriz agertzen da, eta senidearen datuak bete beharko dituzte. Semearen kasuan, PFEZrako zenbatzen den ala ez. Izena, abizenak, jaioteguna eta jaioterria.

Eskaerak aurkeztea
Eskaera-inprimakia

Familia/erref.pertsona

Oharrak:
Laguntza:
Senitarteko berriren bat gehitzeko sakatu marra berria
Senide baten datuak aldatu nahi badituzu, aukeratu nahi duzun eremua haren lerroan eta alda itzazu.
Nahi gabe gehitutako senide bat ezabatu nahi izanez gero, aukeratu haren lerroa eta sakatu lerro gorria duen ikonoa.

Familia-datuak



* Senidetasuna	PF...	* Senitartekoaren izena	* Lehen abizena	Bigarren abizena
Seme-alaba	Sí	XXX	CCCC	CCCC